

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Kanpixa

Zenbat oñatiarrek daki gaur egun nun eguen **Kanpixa baserrixa**? Hiruregoi urtetik gorakua edota Goribar-Garibai-San Pedro aldekoa baldin bada, tira; bestela, nekez, nahiz asko eta asko hurretik pasau sarri, lanerakuan edo pasiuau. Egixa da **inguru hori dezente aldatu dala azkenengo hamarkadatan**. Hor agiri diran etxe gehixenak zutik irauten daue orainddiok; Kanpixa falta da, hain zuzen be. Baiña kanbixorik nabarmenena hutsik dagozen sailletan suertau dira, fabrikaz eta almazenez bete diralako.

Kanpixa aspaldiko izena da Oñatiko historixan. **Kanpia** eta goratxuago dagueu **Kanpiazelai** XV. gizaldira orduko agerketan dira dokumentuetan. Garbi dago bata bestiarekin zerikusixa eukala. Argazkiko **etxe haundi ate arkoduna Zubiete da**, eskumakaldian sasoi bateko errenteruaren etxiarekin. Eta **eskumaragokua da Kanpixa**, Ulma Packaging lantegirako sarrerria moldaitteko bota zana. Akordaitten zarai?

Beste galderatxo bat. **Oñatiko zein auzotan eguen Kanpixa**? Ezta erantzun samurra. Fotografixan hiru auzo agerketan dira: aurrian hutsik dagozen lurak Goribarkuak dira: gaur egun Lur Gorrik, Eguzkialdek, Barrenzelaiñeko zerriak eta udalaren biltegixak beteten dittuan saillak; kamiñuaz bestaldeko Zubiete ta Kanpixa baserrixak Garibaiko partian dagoz, berez Goribarkuak izan biharko lirakeen arren; arrazoia zera da: horraiño Goribar eta Garibai arteko **mugia Irabiertza errekatxuak markaitten dau**: Sanoner Etxebarri, errekan gora ezkeraldian, Goribar da, eta Dolaetxe, eskumaldian, Garibai; Irabiertza errekatxua Zubiete eta Kanpixaren atzetik pasaitten dan/zan ezker, Goribarkotzat hartu biharko gittuke. Baiña...

Halako **salbuespenak eztira gaurkuak**. Atzian agiri diran etxiak San Pedro edo Torreauzokuak dittugu: Kalejako etxe-illaria, Elazarra atzerago eta Azkonitza eskuman eta goixan. Hor be Artixa errekiak egitten dau mugia: ezkerretara Torreauzo, eskumatare Goribar eta Garibai. Baiña **zer dala ta esaten xate Garibai torria eta Garibiko erroia** orain San Pedro barruan dagozen bi baserri horreiri? Bueno, gaurkoz nahikua, ezta?

Fotografixia Manolo Etxaniz zubillagarrak atara eben eta berrogei urtetik gora euki leike. Guri bere alaba Maiteren bittartez aillegau xaku. Milla esker!